



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa-oharra

Ohiko osoko batzarra egingo da zezeilaren 19an, martitzenean

Bilbon, 2013ko zezeilaren 18an.

Lurraldeko Aurrekontuak onartzeko osoko batzarren ostean, Batzar Nagusiek Bizkaiko gaurkotasunari heldu deusie barrero, gai-zerrendan 20 puntu daukazan saio bategaz. Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak, Ana Madariagak, ohiko osoko batzarra deitu dau biharko, zezeilaren 19rako (martitzena). Saioa Gernikako Batzarretxean egingo da, goizeko bederatzi eta erdietatik aurrera.

Lehenengo eta behin, saioak Aldundiaren lau Foru Dekretu Arauemaileak berresteko balioko dau, zerga batzuk egokitu, aldatu edo eguneratzearen gainekoak. Hain zuzen be, honeek dira: sektore finantzarioko aktibo higiezin saneamentuaren eta salmentaren gaineko zerga-arauaren moldaketea (7/2012 Foru Dekretua); Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentaduen gaineko Zergearen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergearen balio-eskualdaketearen zerga-ezarpina (6/2012 Foru Dekretua), eta azken zerga horren gaineko araudiaren aldaketea (8/2012 Foru Dekretua); eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako katastro-balioen eguneraketea 2013ko ekitaldirako (9/2012 Foru Dekretua), %2ko hazkundeagaz 2013ko urtarrilaren 1etik. Lau dekretuak Ganberako Osoko Batzarren aurrean tramitauko dira, irakurketa bakarraren prozeduraren bitartez.

ETXE-KALERATZEAK ETA “FRACKING”-A

Ostean, talde batzarkideek etxe-kaleratzearen gainean aurkeztutako ekimen batzuk eztabaidatuko dira Osoko Batzarrean. Krisi ekonomikoak eztanda egin ebanetik egiten diran hipoteka-betearazpenen gaineko Bizkaiko Parlamentuaren eztabaidea Arauz Besteko lau Proposamenetan (bat, talde bakoitzeko) oinarrituko da. Parlamentuko ekimenen “poker” horretaz gainera, Bilduk Proposamen Ez Loteslea egingo dau, Lurraldean hutsik dagozan etxebizitzetarako “errekargua” ipinteko.

Talde batzarkide guztien ekimen parlamentarioak sustatzeko orduan danen adostasuna euki dauen gaurkotasunezko beste gai bat Bizkaiko hidrokarburoen prospekzioa egiteko lortu dan baimena da, hau da, “fracking” izenagaz ezagutzen dan teknika. Lurpea esploretako metodo honek eztabaida handia piztu dau gizarteko sektore askoren artean, ingurumenean daukan eraginagaitik; horren aurrean, hiru ekimen parlamentario sustatu dira: bat, Euzko Abertzaleak eta Bizkaiko Popularrak taldeek batera aurkeztutakoa, eta beste bi, bakotxa bere aldetik, Bildurena eta Euskal Sozialistena.

Beste alde batetik, osoko batzarrak Arauz Besteko Proposamen honeen gaineko erabagia hartu beharko dau: PPrene proposamena, Bizkaiko Batzar Nagusiek sortzen dabezan albisteak Bizkaia mediako edukietan sartzeko, eta Bilduren beste ekimen bat, Bizkaiko udalerriri “askok” bizi daben egoera ekonomiko “larriari” urtenbidea emoteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ALDUNDIAREN GAINEKO KONTROLA

Foru Exekutiboaren gaineko kontrol parlamentarioa oposizioaren ahozko itaun eta galderen bitartez egingo da. Bizkaiko talde Popularrak A-8 eta AP-68 errepedeen loturearen eta Bizkaibuseko kabinen gaineko itauna egingo deutso foru gobernuari, eta PSE-EEK azalpenak eskatu dauz, kabina horreen ikonoa desagertu egin dalako Foru Aldundiaren webgunetik. PPren informazio-eskaerek Loiuko aireporturaino bidaiatuko dabe, Bilbao Air-en gaineko egoera ezagutzeko. Eta, azkenik, Bilduk Bakioko “Txakolingunearen” gaineko galdera egingo dau, eta, era berean, eskatuko dau azaltzeko zer jazo dan Alonsotegiko Udalean, Azpiegiturak foru soziedadegaz sinatutako hitzarmen baten bitartez lortutako partida ekonomiko baten “erabilera ilegala” dala-ta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Nuevo pleno ordinario el martes, 19 de febrero

Bilbao, a 18 de febrero de 2013.

Tras las sesiones plenarias para aprobar los Presupuestos del Territorio, las Juntas Generales de Bizkaia recupera el pulso a la actualidad vizcaína a través una sesión que incluye 20 asuntos en el orden del día. La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha convocado este pleno ordinario para mañana martes, 19 de febrero, que se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika a partir de las nueve y media de la mañana.

La sesión comenzará con la ratificación de cuatro Decretos Forales Normativos de la Diputación Foral de Bizkaia para adaptar, modificar o actualizar varios impuestos. Se trata de la adaptación de la normativa tributaria en materia de saneamiento y venta de los activos inmobiliarios del sector financiero (Decreto Foral 7/2012), el establecimiento tributario de la transmisión de valores en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y en el Impuesto sobre el Valor Añadido (Decreto Foral 6/2012), así como la modificación normativa de este último impuesto (Decreto Foral 8/2012), y la actualización de los valores catastrales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles para el ejercicio 2013 (Decreto Foral 9/2012) con un incremento del 2% desde el 1 de enero de 2013. Los cuatro decretos se tramitarán ante el Pleno de la Cámara por el procedimiento de lectura única.

DESAHUCIOS Y “FRACKING”

El pleno pasará a debatir después diversas iniciativas presentadas por los grupos junteros en relación a los desahucios. Cuatro Propositiones No de Norma diferentes, una por grupo, centrarán el debate del Parlamento vizcaíno sobre las ejecuciones hipotecarias que se están realizando desde que estalló la crisis económica. A estas iniciativas parlamentarias se unirá otra proposición no vinculante de Bildu para establecer un “recargo” a las viviendas vacías del Territorio.

Otro asunto de actualidad que ha encontrado unanimidad a la hora de impulsar iniciativas parlamentarias de todos los grupos junteros, es la autorización obtenida para la prospección de hidrocarburos en Bizkaia, técnica que se conoce como “fracking”. Este método de exploración del subsuelo, que ha suscitado una gran controversia entre amplios sectores de la sociedad por su impacto medioambiental, ha impulsado tres iniciativas parlamentarias, una conjunta de los grupos Nacionalistas Vascos y Popular Vizcaíno, y otras dos, por separado, de Bildu y Socialistas Vascos.

Por otro lado, el pleno del parlamento vizcaíno tendrá que posicionarse sobre las siguientes Propositiones No de Norma: una propuesta del PP para que se incorpore a los contenidos de Bizkaimedia las noticias generadas por las Juntas Generales de Bizkaia, y otra iniciativa de Bildu para que se dé una solución a la “grave” situación económica que viven “muchos” municipios de Bizkaia.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CONTROL A LA DIPUTACIÓN

El control parlamentario al Ejecutivo foral se representará a través de varias interpelaciones y preguntas orales de la oposición. El grupo Popular Vizcaíno interpela al gobierno foral por la conexión de la A-8 y la AP-68 y las cabinas de Bizkaibus, mientras que el PSE-EE solicita una aclaración por la desaparición del icono de estas cabinas de la página web de la Diputación Foral. Las peticiones informativas del PP viajarán también hasta el aeropuerto de Loiu para conocer la situación de Bilbao Air. Y, por último, Bildu pregunta por el “Txakolingune” de Bakio y por la “utilización ilegal”, por parte del ayuntamiento de Alonsotegi, de una partida económica obtenida a través de un convenio firmado con la sociedad foral Azpiegiturak.